

SEXU-USTIAPENA
HELBURU DUEN
EMAKUME ETA
NESKEN SALEROSKETA

Subvenciona el Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasun Institutuaren Laguntzarekin



Sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketa Nafarroan

Salerosketa badago



2018



Ez dut nahi emakumeek gizonen gainean boterea
izaterik, euren gainean baizik.

Mary Wollstonecraft

Acción Contra la Tratak, Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetza, Berdintasun eta Gizarte Ahalduntze sailarekin elkarlanean, gida labur hau egin du Nafarroan gertatzen den eta sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketa delituaren errealitatea ezagutaraztea xede. Salerosketari buruzko kontzeptu orokor batzuen, berau eragiten duten hainbat arrazoiaren eta delitu horren ondorio batzuen bidez, herritarren artean hausnarketa bultzatu nahi dugu ditugun datuetatik abiatuta, eta gizartearen konpromisoa lortu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria mota hau deuseztatzeko.

Gida honetan honako hauei buruzko informazioa topatuko duzu: zer da salerosketa, nola gertatzen da eta zergatik, dagoen esparru juridikoaren laburpena, salerosketaren egoera Nafarroan eta glosario bat. Gidaren hitz garrantzisuenak biltzen dituen glosarioa da eta uneoro kontsultatzeko aukera izanen duzu.

Salerosketaren errealitatea ezagutzera gonbidatzen zaitugu, bai eta herritar moduan indarkeria mota hau deuseztatzeko eta pertsona guztientzat egiazki berdintasunezkoa, askea eta osasuntsua den gizarte bat eraikitzeke ahalmena gurea dela ikustera ere.

Aurkibidea

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa	9
Salerosketaren zikloa	10
Txirotasunaren feminizazioa	12
Prostituzio kontsumitzailea, funtsezko osagaia salerosketan	14
Etenik ez duen indarkeria: hedabideak	19
Salerosketaren aurkako borroka-estrategiak	20
Zergatik dugu mintzagai Nafarroan gauzatzen den salerosketa?	26
Gehiago Jakiteko	30
Glosarioa	33

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa XXI. mendeko esklabotzatzen jo da. Palermoko Protokoloak ezarritako definizioaren arabera (2000. urtea, Nazio Batuak), salerosketatzen jotzen da

ZER “pertsonak erakartzea, garraiatzea, lekuz aldatzea, hartzea edo jasotzea,

NOLA mehatxatuz edo indarkeria edo behartzeko beste modu batzuk, bahiketa, iruzurra, engainua, botere-abusua edo kalteberatasun-egoera erabiliz, edo ordainketak edo onurak emanez edo jasoz

ZERTARAKO beste pertsona bat mendean duen pertsona baten baimena lortzeko, ustiapen helburuekin. Ustiapenak, gutxienez, prostituziotik eta sexu-ustiapen beste modu batzuetatik, lan edo zerbitzu behartuetatik, esklabotzatik edo antzeko jardunetatik, zortasunetik eta organoen erauzketatik eratorritakoa biltzen du”.

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa salerosketa mota jakin bat da. Ezinbestean ez dakar berekin mugak legez kanpo igarotzea, baina hala denean pertsonen legez kanpoko trafikoa ere ekar dezake. Beste izendapen batzuk, hala nola oso erabilia den “emakume zurien salerosketa”, ez dira zuzenak eta zaharkituta daude, askotan hedabideetan azaltzen diren arren.

Batzuetan, salerosketa egoeran dagoen emakume batek beharbada prostituitzea onartu du, baina topatzen dituen kondizioak ez dira hitzartutakoak eta azkenean ustiatzen dute, estortsioa egiten diote eta duen diru gehiena

proxenetei ematera behartuta bukatzen du. Ustiatzeko asmoa baldin badago, nahiz eta aurrera ez eraman, salerosketa delitua izanen da ere.

Europar, sexu-ustiapena helburu duena da salerosketa erarik ohikoena. Azken azterlanen* arabera, egoera mota honetan diren emakume eta neska gehienak Erdialdeko Europatik eta Ekialdeko Europatik datoz, baina Brasil, Txina, Nigeria edo Vietnamdik ere bai. Gezurra eta “lover boy” metodoa dira atzemate teknikarik erabiltzenak.

*Situational Report on Trafficking in Human Beings in the European Union - Europol, 2016ko otsaila.

Salerosketaren zikloa

1 ATZITZEA

Bahiketaren, gezurraren, botere gehiegikeriaren, kalteberatasuna dela bide baliatutako abusuaren bidez edo beharragatik. Batzuetan, emakumearen familiak berak edo gezurrezko senargaiak (loverboy edo padrote deitutakoa) laguntzen dute emakumea atzitzen.

2 LEKUALDATZEA

Behartua izan daiteke edo ez. Mugak igarotzea ekar dezake berekin edo ez. Mugak igarotzen badira, legezkoa edo legez kanpoko izan daiteke lekualdatzea.

3 HARRERA EGITEA

Helmuga-tokian egiten zaio harrera emakumeari, duen zorrari buruz informatzen zaio (5.000-80.000 euro) eta honako hauek irakasten zaizkio: non eta noiz prostituitu behar duen, zer laguntza mota eskatu behar duen eta nola, prostituzio-kontsumitzaileei kobratu beharrekoa, edozein galderari erantzun beharrekoa eta bere proxenetari eman beharreko diruaren zenbatekoa.

4 USTIATZEA

Prostituzio klubetan, pisuetan, masaje-aretoetan edo bide-publikoan. Proxenetek emakume hauek hedabideetan iragartzen dituzte zehaztuz gazteak eta zonaldean berriak direla, eskaintzen dituzten zerbitzuak, 24 orduz eskuragarri daudela, harremanak kondoirik gabe izaten dituztela, etab. Adin eta mota guztietako gizonek, ezkongabeek, ezkonduak, ikasleek, langileek eta langabetuek, ordaintzen dute emakume hauek erabiltzeagatik eta beren burua libreki eskaintzen ari direla uste dute. Horrela, mafien negozioak jardunean jarraitzen du gure inguruan, emakumeen askatasunaren kontura irabazi joriak emanez tratugileei.

Nola atxikitzen da salerosketa egoeran dagoen emakume bat?

Salerosketa egoeran diren emakumeen aurka egiten den indarkeria askotarikoa da: badira kasuak bezainbeste pertsona. Modu burutsuan edo ez hain burutsuan egin daiteke, psikologikoa, kulturala, ekonomikoa edo fisikoa eta esplizitua izan daiteke.

Askotan, emakumeak eta neskak ez dira oharitzen ere sexu-ustiapena helburu duen egoeran direla eta, horrenbestez, norbait beren eskubideen aurka ari dela ez dute aitortzen.

Emakumearen zein emakumearen familiaren aurkako mehatxuak eman daitezke. Indarkeria fisikoa eta behartuta atxikitzea gehiegikeria erak dira argi eta garbi, baina badira behartzeko beste era batzuk, hala nola budua, zeina oso eraginkorra den Saharaz hegoaldeko emakumeen konpromisoa iraunarazteko orduan, izan ere, duten zerga ordaintzeko eta obeditzeko promesa egin baitute beren familiak mantendu edo etorkizun bat eraikitze aldera.

Manipulazio beste teknika batzuk dira dokumentazioa atxikitzea, konfiantzarik eza eta beldurra poliziar, kanporatuak izateko agin baitezake; beldurra justiziar, salaketa jartzen bada emakumea eta bere pertsona maiteak arriskuan jar baititzake; isolamendua, ez ezagutzea babesa eman diezaiokeen inor ez eta herrialdeko hizkuntza ere; proxenetek emandako informazio faltsuak, etab.

Beste batzuetan, atzitzailleak edo proxenetak neska gaztea maitemintzen dute gero hura behartzeko, estortsioa egiteko, psikologikoki manipulatzeko eta ustiatzeko. “*Loverboy*” edo padrote deitutakoek egiten dute hori. Gainera, emakumeak oso maiz eramaten dituzte ustiatze toki batetik beste batera inorekin konfiantza edo adiskidetasun harremanak ez izateko. Eskuarki, prostituzio negozioetan emakume gazteak, berriak eta askotarikoak behar izaten dira prostituzio-kontsumitzaileen eskaerak aktibo jarraitzeko. Hori dela eta, prostituzioaren erakargarrietan abisu hauek topatzea oso ohikoa da: “berriak”, “berritasuna”, “lehen aldiz lruñean”, etab.



Zer da feminizazioaren txirotasuna?

Berdintasunik eza ez dago bakarrik emakume eta gizonok egiten dugun lan motan, edo lan bera egiteagatik jasotzen dugun soldatan edo aintzatespenean. Aberastasunen berdintasunik ezak eta, beraz, txirotasunak emakumeei eragiten die bereziki. NBEk munduan emakumeek duten egoerari buruz aldian-aldian ematen dituen zifren arabera, munduan txirotasun egoeran diren pertsonen % 70 baino gehiago emakumeak dira, eta elikagaiak prestatu, landatu eta uztatzeko orduan gehiengoa izan arren, bakarrik emakumeen %2 dira lurren jabe.

Historian zehar, doako familia-zaindari eginkizuna eman zaie emakumeei; jabetzarako, ikasketetarako, ordaindutako lanerako eta abarrerako eskubidea eragotzi zaie.

Aukeren gabeziak, baliabideen gabeziak eta familia-zamek bide ematen diote desabantaila ekonomiko eta

soziokulturalean diren emakumeak eta neskatilak beste pertsona batzuek esplotatuak izateko arrisku handiagoa edukitzeari.

Krisiak, gatazkak, indarkeria eta txirotasuna direla eta, hainbat herrialdetako emakume eta neskek munduko beste herrialde batzuetara jotzen dute bizirik irtetearren eta ziur egotearren. Kasu hauetan, sexu-ustiapena helburu duten salerosketak sareak jatorrizko, bidean igarotzen diren eta jomuga diren herrialdeetan jarduten dira. Metodo sofistikatuak erabiltzen dituzte, gure legediei desafio eginez eta beren tratularien onurarako atxikita dauden eta erabiliak diren pertsonen identifikazioa galaraziz. Prostituzio-kontsumitzaileen erabilera naturalizatuak aukera ematen du sexu-ustiapena helburu duen merkatuak goraldian jarraitzeko eta munduan irabazi handienak ematen dituzten negozioen artean kokatzen da.

Munduan salerosketa mota ororen (sexu-ustiapena, lan-ustiapena, eskaletasuna, organoen erauzketa, ezkontza behartua, etab.) biktimen % 80 emakumeak, nerabeak eta neskek dira eta % 50 % 95 emakumeak eta neskek dira (2*).

*1 Pertsonen salerosketari buruzko hainbat datu garrantzitsu - UNODC

*2 SEXU-USTIAPENA HELBURU DUEN EMAKUME ETA NESKEN SALEROSKETAREN AURKAKO PLAN INTEGRALA. 2015-2018 – Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.



*Débora Arangoren urmargoa.
Frine edo Zuri salerosketa, 1940*

“Bereziki 1900tik aurrera salerosketa gertakaria bereziki areagotu zen eta mundu gerraren ondoren larriagotu zen. emakume europarrak ziren biktimak, izan ere, gosetik etagerrako izugarrikerietatik ihesean, harrapakin erraza izan ziren trafikatzailerentzat, sexu-ustiapenarekin lotutako helburuetako erabiliak eta ekialdeko europara, asiara eta afrikara eramanak. horregatik, “emakume zurien salerosketa” deitu zitzaion jarduera horri, emakume zuriak, europarrak eta amerikarrak bildu eta arabiar, afrikar edo asiar herrialdeetara salerostera eramaten zituztelako”.

Recorrido histórico sobre la trata de personas. Mariblanca Staff Wilson

Prostituzio kontsumitzailea, funtsezko osagaia salerosketan

Eskuarki genero berdintasunari eta bereziki emakumeen aurkako indarkeriari buruz, bere adierazpen guztietan, hitz egiten dugunean, ekuazio honetan gizonak funtsezko zatia direla ahazten dugu askotan.

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketak desberdintasun sozialak, ekonomikoak eta genero aldetikoak baliatu ditu dirua irabazteko beren sexu-gogobetetasuna kosta ahala kosta beraien eskubide bat dela uste duten gizonen esker. Haatik, sexu-ustiapena helburu duen salerosketa delitua da eta giza eskubideen aurkako atentatua.

Merkatuaren logikari erantzunez, prostituzio-eskaririk gabe sexu-ustiapena helburu duen emakumeen salerosketa ezin izango zen existitu.

Gizon askok aitortzen dutenez, talde bateko kide direla sentitzeko beren gizentasuna erakustera eta berdinen taldean beren ustezko “gizentasuna” argi eta garbi erakustera behartuta daude, zuzenean edo zeharka. Aldi berean, gizatalde bateko kide izanik, normalizatuta dagoen indarkeria mota hori baliatzeko zilegitasuna sentitzen da. Beharbada ez da halakotzat hartzen edo baliteke ere horretaz jabetu nahi ez izatea.



“Talde ospakizunetan izan da [...]. Ongi pasatzeagatik joaten ginela uste dut [...]; ni behintzat ez nintzen joaten sexu-arrazoiengatik, ezta gutxiago ere. Lagun batzuk beharbada bai, baina ni ez; eta fantasiagatik ezta ere. Arrari eman iezaiozu eme bat gizon egin behar duenean esaldiak dionerangatik, ongi pasatzeagatik [...]. Orain, hastapen erritu baten antzekotzat ikusten dut” (bigarren hezkuntzako irakaslea, 43 urte, ezkondua, Ourense).

“El putero español. Quiénes son y qué buscan los clientes de prostitución” (Putazale espainiarra. Prostituzio bezeroak nortzuk diren eta zer bilatzen duten). Agueda Gómez Suarez, Silvia Pérez Freire eta Rosa María Verdugo Mates-ena (Edición Catarata 2015).

Horregatik, sexu-ustiapena helburu duen salerosketa gizarte osoari, gure genero roletatik abiatuta, eragiten dion arazoa dela ulertzea beharrezkoa da, eta konponbide bakarra ez dela neurri judizialak eta polizialak erabiltzea. Egiturazko arazo soziokulturala da eta alde askotatik egin behar zaio aurre emakume eta nesken egungo esklabotza amai dadin nahi badugu. Gizonek, nagusiki, badute bikain antolatutako gizon prostituitzaileen eta prostituitutako emakumeen egitura honetan beren partaidetza ezbaian jartzeko ahalmena.



“Adinez nagusia izatera iragan berritan, debekatuta zenuen guztia egin nahi duzu. Eta haur zarenetik ingurunean baduzunean “emagaldutara joateaz” hitz egiten duen jendea, mundu guztiak egiten duen gauzarik ohikoena dela uste duzu. Hortaz, hain normalizatua ikusten duzun, ezen zuk ere egin behar duzula uste baituzu” (enpresa bateko idazkaria, 33 urte, ezkontuta, Ourense, 2012).

“El putero español. Quiénes son y qué buscan los clientes de prostitución” (Putazale espainiarra. Prostituzio bezeroak nortzuk diren eta zer bilatzen duten). Agueda Gómez Suarez, Silvia Pérez Freire eta Rosa María Verdugo Mates-ena (Edición Catarata 2015).

Prostituzioak Espainian egunero 5 milioi euro mugitzen dituela zenbatesten du polizia nazionalak. Soilik sexu-ustiapenak (prostibuzioa, pornografia eta online sexua) egunero 25.000 milioi euro mugitzen ditu munduan eta 12 milioi emakumeri eragiten die.

GIZONEN

99,7%

Prostituzio-eskariaren % 99,7 gizonek osatzen dute eta adin, egoera sozio-ekonomiko, formakuntza, lanbide, egoera zibil, jatorri, etnia, erlijio... guztietakoak dira, bereizketarik gabe.

EMAKUMEEN

0,3

Eskariak erruz gaintitzen du eskaintza. Ez dago prostituzioan jardun nahi duen nahikoa emakume, eta hori horrela izanik, salerosketa-sareek putetxeak, apartamentuak, masaje-aretoak, karrika, web orriak eta abar elikatu behar dituzte kontsumitzaileek emakumeak eta neskak asteko 7 egunetan eta eguneko 24 orduetan eskuragarri eduki ditzaten. Askotan, emakume eta neska horiek ez dakite ustiatuak diren tokiko hizkuntza, eta Internet eta tokiko prentsaren bidez erraz, inongo kontrolrik gabe, iragartzen dituzte eta, horrela, hedabide hauek ere, lege hutsuneen eta autoarauketa gabeziaren babespean, irabaziak lortzen dituzte emakume merkatu honetatik.

Espainia Europako lehendabiziko herrialdea da prostituzioaren kontsumoan eta hirugarrena munduan, bakarrik sexuturismo handia jasotzen duten bi herrialderen atzetik: Puerto Rico eta Thailandia.

UNODC. 2010. Trafficking in persons into Europe

Gizartearen eta erakundeen tolerantzia eta ezjakintasuna: salerosketaren haztegia

“Sexu-merkatua”, oro har, eta emakumeen salerosketa, bereziki, oso modu ilunean gauzatzen dira. Oraindik gutxi badira ere, gero eta azterlan gehiago daukagu prostituzioen kontsumitzaileei eta haien motibazioei buruz.

Salerosketari dagokionez, bere funtzionamendua hain konplexua izanik, datu zehatzak lortzea ez da erraza; salerosketa egoeran diren emakumeen ahotsak isilarazten dira. Salaketak aurrera ateratzea zaila da eta zifra ofizialek izozmendiaren tontorra baino ez dute ordezkatzen.

Gure gizarte-tolerantzia ere kezagarria da. Salerosketa egoeran diren emakumei, maiz, gizatasuna kentzen zaie migratzaileak edo ekonomikoki kalteberak direlako edo beste ezaugarri

batzuk dituztelako. Eta askotan “besteak”, kanpokoak, ahaztuak balira bezala hartuak dira. Oraintxe bertan, iragarriak, estortsionatuak, bortxatuak eta prostituzioan jardutera behartuak izaten diren emakume asko ditugu inguruan. Edo berdin dena:

 Gure aldamenean baditugu sexu-ustiapena helburu duen salerosketa egoeran diren emakumeen gorputzak eskatu eta kontsumitzen dituzten gizon asko.

Prostituzioaren kontsumoa gazteen arteko aisia moduan

Generoarekin, hau da, gizontasuna eta emetasuna irudikatzeko moduarekin, zerikusia duten gertakari guztiak lotuta daudenolabait. Sistemaheteropatriarkala beraren adierazpen ezberdinak dira. Aldi berean, herritar gero eta gazteagoek prostituzio egoeran diren emakumeak kontsumitzea arrunt bihurtu da. Gazte horiek, hipersexualitatearen kulturaren gizartekotuak, berehalakotasuna, eskuragarritasuna, erosotasuna eta haien lagunek animatuta ahaleginik gabeko sexu-esperientzia bat izatea bilatzen dituzte. Sexu-ustiapenerako emakume eta nesken salerosketak ere objektu honen prezioa jaistea ekarri du eta, orain, sakela guztiek eskura dezakete. Klubek, pisuek, kaleak, prentsako eta interneteko iragarkiek produktua hurbildu eta eskuragarri jartzen dute aisiarako jarduera gisa aurkeztuz.



Zertan datza hipersexualizazioa? Errendimendua pornoaren izar batena bezainbestekoaizatean, neskaksexualizatzean, sexua produktuak eta zerbitzuak saltzeko erakargarri gisa erabiltzean edo emakumeak objektu desiragarri, mendeko eta beti prest dauden objektu gisa eta gizonak testosteronak menderatutako ar asegaizten modura aurkeztean.

Etenik ez duen indarkeria: hedabideak

Inguruan ditugun hedabideak, filmak, sailak, publizitatea eta informazio-edukiak ere ez daude errealitate horietatik kanpo eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko tolerantziatzko diskurtsoa gordetzen laguntzen dute.

Hedabideetan, gizonen begiradarako objektu sexualizatu eta apaingarri gisa aurkeztutako emakumeak ikus ditzakegu oraindik. “Objektibotasunaren” izenaren pean, eginkizun estereotipatueta eta hipersexualizatueta ageri diren gizon eta emakumeen irudiak jasotzen ditugu modu askotara. Hala kirolei buruzko berrietan, nola politikan, gizartean,

ekonomian, gertakarietan eta abarretan emakume eta gizonen ordezkariak neurri berean azaldu gabe jarraitzen du, zolitasun handiagor ala txikiagor.

Ikuspegi kritikoa garatuz eta genero ikuspegia baliatuz, errealitatea halabeharrez ez dela kontatzen digutena bezalakoa ohar gaitezke.



Sexu-ustiapenari eta prostituzioari eta horiek genero-berdintasunean duten eraginari buruzko Europako Parlamentuaren ebazpenak (2014) modu honetan azaltzen du hedabideen erantzukizuna berdintasunik ezarekiko eta salerosketarekiko:

“22. (...) Egunkarietako eta hedabide sozialetako sexu-zerbitzuen publizitatea pertsonen salerosketa eta prostituzioa sostengatzeko modu bat izan daiteke”.

“24. (...) masa-hedabideek eta pornografiak, bereziki interneten, emakumearen kontrako irudia sortzearen ondorioak, gehienak negatiboak. Ondorio horiek direla eta, gerta daiteke emakumearen giza nortasunarekiko mespretxua sortzea eta emakumea salgai bat bailitzan aurkeztea; sexu-askatasuna ez dela emakumeak mespretxatzeko baimen gisa ulertu behar ohartarazten du”.

“25. (...) prostituzioaren normalizazioak eragina du gazteek sexualitateaz eta gizonen eta emakumeen arteko harremanaz duten pertzepzioan”.

Salerosketaren aurkako borroka-estrategiak

Salerosketaren aurkako borroka **mundu osoan** dagoen erronka da. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoaren 2002ko “Esklabotza eta bere forma garaikideak deuseztatzea” izeneko txostenak adierazten duen moduan:

Gaur egun gero eta zailago da pertsonen salerosketa behatzea eta kontrolatzea, munduan migrazioa nabarmenki egiten ari delako gora. Argi dago salerosketa «arrisku gutxiko eta errendimendu handiko» enpresa dela tratulariarentzat eta, askotan, agintariei zail zaie egileak identifikatzea, beren jarduerak ezkutatzeko azpikeriak baliatzen dituztelako. Behaketa eta prebentzioa are zailago dira salerosketaren isilpeko izaerarengatik eta salerosketari lotutako indarkeria mehatxuengatik, bereziki delinkuentzia antolatutak esku-hartzen duenean.

Gizakien salerosketaren aurkako Europako Kontseiluaren #197 hitzarmena (Varsovia, 2005) juridikoki loteslea da berau sinatzen duten estatuentzat. Prebentzioari, ikerketari eta delituaren zigorrari bideratuta dago eta badu berritasun bat: giza eskubideen aldeko eta biktimak babesteko ikuspegia gaineratzen du.



Hitzarmen horrek pertsonen Gizakien Salerosketaren Aurkako Borrokari buruzko Adituen Taldea (GRETA) eratzea ekarri zuen segimendua eta kontrola gauatzeko (Group of Experts on Action Against Trafficking in Human Beings).


Europako Batasunaren beste tresna batzuk salerosketaren aurka:

1. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 5. Artikulua, esklabotasuna eta gizakien salerosketa debekatzeari buruzkoa.
2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36 Zuzentaraua, gizakien salerosketa prebenitzeari, horren aurka borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzkoa.
3. Europako Batasunaren estrategia pertsonen salerosketa deuseztatzeko 2012-2016.

Estatuko araudia:

Sexu-ustiapena helburu duen pertsonen salerosketa delitua da, eta hala dago jasota Espainiako Zigor Kodean 2000. urtetik.

Zigor Kodearen 2010eko erreformak gizakien salerosketa delituari buruzko VII bis Izenburua sartu zuen, eta 177 bis artikulua, zer jokabide diren zigorgarriak eta dagozkien zigorrak zehazten dituena.



Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodearena. VII bis IZENBURUA. Gizakien salerosketari buruzkoa. 177 bis Artikulua.

1 Bost urtetik zortzi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, gizakien salerosketaren errudun gisa, nahiz Espainiako lurraldean, nahiz Espainiatik edo Espainia iraganbide zein helmuga izanik, indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun zein beharrian-egoeraz, nahiz biktimaren, hori nazionala edo atzerriarra izan, ahuleziaz abusatuz, edo biktimaren kontrola duen pertsonaren baimena lotzeko ordainketak edo irabaziak emanez edo hartuz, biktima antzeman, garraiatu, lekualdatu, hartu, harrera egin edo ostatu ematen dionari ondorengo edozein helbururekin:

- a) Bortxazko lanak edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasunaren antzeko praktikak.
- b) Sexu-ustiaketa, pornografia barne.
- c) Ustiaketa delitu ekintzak egiteko.
- d) Gorputz-organoak erauzteak.
- e) Behartutako ezkontzak.

Bada behar edo ahultasun egoera bat pertsonak ez duenean gehiegikeriaren menpean jartzea ez den beste aukerarik.

2 Aurreko atalean aipaturiko bideak erabili ez arren, gizakien salerosketatzat hartuko da aurreko atalean adierazitako edozein egintza, horiek adingabeei egiten zaizkienean ustiaketa helburuekin.

3 Gizakien salerosketaren biktima baten adostasunak ez du ondoriorik izango artikulu honen lehenengo atalean aipatu bideetariko bat baliatu denean.

4 Artikulu honen lehenengo atalean zehaztutako zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da ondorengo kasuetan:

a) delituaren xede diren pertsonen bizitza edo integritate fisikoa edo psikikoa arrisku larrian jartzen direnean;

b) biktima bereziki ahula denean gaixotasuna, haurdunaldia, desgaitasuna edo egoera pertsonalagatik, edo adingabea denean.

*Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren artikulu bakarraren laurogeita hamalau zenbakiak erredaktatutako 177 bis artikulua 1 eta 4 zenbakia. 1/2015 Lege Organikoak honako lege hau aldatzen du: Zigor Kodearen 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa (martxoaren 31ko EAO).
Iraunaldia: 2015eko uztailak 1.*

Gainera, Zigor Kodearen 187 eta 188 artikuluek zigortu egiten dute:

-  Adingabea den pertsona prostituziora indusitu, faboratu edo errazten duen edozein jokabide.
-  Indarkeria erabiliz beste pertsona bat prostituzioan jardutera edo horretan irautera behartzea.
-  Prostituitutako pertsonaren beharrizan egoeraz nahiz biktimaren ahuleziaz abusatuz prostituitzera indusitzea.
-  Proxenetismoa, hau da, bestearen prostituzioa esplotatuz irabazi ekonomikoak lortzea, prostituitutako pertsona horrekin ados dagoela adierazi arren.

Sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken **salerosketaren aurkako 2015-2018 aldirako II. Plan Integrala** bat dator gizakien Salerosketa Deuseztatzeko Europako Batasunaren Estrategiarekin (2012-2016) sexu-zerbitzuen **eskaria** sexu-ustiapena helburu duen salerosketaren arrazoi nagusietako bat dela aitortzean. **Prebentzioa** ekintza-ildo nagusietako bat dela azpimarratzen du.

Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritzak koordinatutako plan integral horrek “erantzukizunak dituzten eta gaian adituak diren administrazioek, instituzioak eta erakundeek inplikaraziko dituen eta biktima eta delinkuenteen ezaugarri bereziak aintzat hartuko” dituen sistema bat izateko beharra aitortzen du. “Gizakien salerosketa, bereziki emakume eta haurrena, prebenitzea, zapaltzea eta zigortzea” bilatzen du, Palermoko Protokoloan ezarritakoari jarraiki, eta giza eskubideak sustatzea eta kaltea pairatutako pertsonak babestea du helburu nagusizat. **7 oinarri finkatzen** ditu:



Halaber, plan honek oroitarazten du:

Gizakien salerosketa ezabatzeko Europako Batasunaren Estrategiaren arabera (2012-2016), sexu-zerbitzuen eskaria sexu-ustiapena helburu duen arrazoi nagusietako bat dela jotzen da. Hori dela eta, prebentzioaren eremuan alderdi hori ezinbestean landu beharra dago, prostituzioa eskatzen duten gizonak eta gizartea bere osotasunean kontuan hartuta. Izan ere, gizakien salerosketa urruneko herrialdeetan gertatzen den uste osoz, gizarteak tolerantziatzko jarrera baitu hurbileko egoera zenbaitekiko, ez baitira aitortzen balizko esklabotza egoera moduan.

Gaur egun, salerosketa egoeran egon daitekeen emakume bat polizia trebatu eta sentibilizatuak identifika dezake, betiere polizia hainbat pista edo adierazle identifikatzeko gai bada: jatorria, egoera fisikoa, egoera psikologikoa, jarrera, identifikatzeko modurik izatea, harreman motak beste pertsona batzuekin, diru zorrak, telefonoaren erabilera, mugimendu askatasuna...

Beharbada salerosketa egoeran dagoen emakumeak bortxapean dagoen ala ez aitortzeko beharrik gabe, eta poliziarekin lankidetzan aritzeko inongo eskaintzaren beharrik gabe, emakume hori salerosketaren biktima dela errekonozitu ahal izango da. Une horretatik aurrera, arautu gabeko egoera administratibo batean dagoen migratzaile bat bada, nahi izanez gero, "hausnartzeko eta berrezartzeko" hiru hilabete izanen ditu. Hiru hilabete horietan, zaindua eta babestua izanen da eta epe hori bukatuta salaketa bat jarri ala ez erabakitzeko aukera izanen du. Jatorrizko bere herrialdera itzuli nahi duen ere erabaki ahal izanen du (bakarrik bere borondatez bada).

Doako laguntza juridikoaren sistemak gizakien salerosketaren biktima guztiei doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzen die.



Ez dezagun espero salerosketa egoeran dagoen emakume batek bere kasua poliziaren aurrean salatzea. Litekeena da, bere babesa bermatzen duen baliabiderik ez dagoen bitartean, inoiz ez salatzea.



**Bidegabekeria bat onartzeak atea zabaltzen
die jarraian etorriko diren gainerako guztiei.**

Willy Brandt

Zergatik dugu mintzagai Nafarroan gauzatzen den salerosketa?

Sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketa ez da gertakari berria, baina gorantz ari da egiten. Emakumeen salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren azken datuen arabera, Nafarroan 700 eta 800 emakume eta neska artean daude prostituzio egoeran eta gure erkidegoan badira “harremanetarako” hogeit bat klub eta prostituzioan jarduteko ehun pisu baino gehiago. Egoera horretan diren emakumeetako asko etorkinak dira, oro har emakume eta neska gazteak dira eta, besteak beste, Nigeriatik, Errumaniatik, Paraguitik, Txinatik, Brasildik edo Dominikar Errepublikatik datoz.

Eskariari buruz ari bagara (hau da, prostituzio kontsumitzaileak), kontsumoa adin goiztiarreko mutilen artean gero eta ohikoagoa da. Haatik, eskatzaile horiek ez dute ezagutzen edo ez dute ezagutu nahi diruz ordaintzen dituzten emakume horien egoera. Sarri askotan mehatxuen pean, bortxa, gehiegikeria edo behar egoeran egoten dira emakume horiek. Prostituzioari eta sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketari merkatu librearen izaera esleitzen diegu eta, ondorioz, gizonek une oro (24 orduz, 7 egunetan) dute merkatuan eskura daitekeen horren truke ordaintzeko abantaila. Baina nork hartzen du kontuan kontsumitzeko ordaintzen den pertsonaren ongizatea?



Bestalde, jatorri, adin, jarduera-mota eta prezio guztietako emakumeen iragarkiak normalizatuta daude web-orrietan (eta 2018ko martxora arte gure tokiko prentsan argitaratzen ziren) tankera honetako erakargarrien bidez: “japoniar berriak”, “gaztetxo polit-politak”, “neska ekialdetar berriak”, etab.



Emakume gazteak, gehienak etorkinak, adin, jatorri, lanbide eta egoera sozio-ekonomiko guztietako gizonak kontsumitzeko eskuragarri jartzeak gizonak eta gizonentzat zuzendutako merkatu honetan generoen arteko zuloa oso sakona dela adierazten du.

Sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketak gure sistemaren eskaerei erantzuten die:

Egitura kapitalista eta neoliberalaren egituran parte-hartzen du, pertsonak merkatuaren logikan sartzen direla ulertzea baitakar: dena dago salgai, betiere horren truke ordaintzeko prest dagoen norbait badago. Salerosketa horien parte diren pertsonen gizatasuna kentzen die logika horrek.

Heteropatriarkatua deitutakoan parte-hartzen du, emakumeak prostituituak direlako eta gizonak, aldiz, prostituzioa eskatzen dutelako, eta lanaren lan sexu-banaketa, zeina salerosketa mota hauetan nabarmentzen den, heteroarauaren eta generoaren arabera bereizketaren logikan oinarritzen delako.

Salerosketaren aurkako Plan Integralaren kariatara Osasun, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasun Ministerioak egindako txostenaren arabera, sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketa egoeran diren pertsonen % 95 emakumeak eta neskak dira.

Nafarroa salerosketaren aurkako borrokan

Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa (Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2015eko apirilaren 15ean argitaratua; 2015eko maiatzaren 5eko EAO)

Sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketa genero-indarkeria mota bat gehiago da, eta Nafarroan hala aitortuta dago emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean. Lege horrek estatu-legeak genero-indarkeria ulertzeko duen moduaz harago doa; izan ere, estatukoak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan erabilitakoa baino ez baitu genero-indarkeriatzat jasotzen. 14/2015 Foru Legeak ezartzen du gure esparruan indarkeria matxistaren adierazpenak direla, baita ere, honako hauek: emakumeen eta nesken salerosketa, feminizidioa, emakumezkoen genitalen mutilazioa, sexu-esplotazioa eta gazteegitan, hitzartuta edo behartuta ezkonaraztea. Gainera, 2018ko apirilean Foru Legea aldatu eta prostituzioa edo sexu-esplotazioa emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen gisa txertatu zen, honela definituta: beste pertsona batzuekin sexu-harremanak diru truke izatearen jarduna. Onura finantzarioa edo bestelakoa lortzea besteen prostituzio-jarduna ustiatuz (ekintza pornografikoak edo materialak pornografikoen ekoizpena barne), beste horien adostasunarekin bada ere.

Legearen 18. artikulua ere aldatu egin zen (hedabideen esparruko neurriak), eta ezarri zen diru-laguntzak eta publizitate instituzionalerako guneak ukatuko zitzaizkiela prostituzio iragarkiak dituzten edo emakumeekiko eduki iraingarriak erreproduzitzen dituzten komunikabideei.

Salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa

Salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa 2011n eratu zen. Balizko salerosketa egoeren aurrean esku-har dezaketen instituzio publikoek eta gizarte erakundeek osatua dago. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bultzatuta, sail hauetako ordezkariak osatzen dute: Gizarte Eskubideak; Funtzio Publikoa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Saila; eta Osasunbidea; Foruzaingoa, Polizia Nazionalaren Kidegoa, Guardia Zibila, Iruñeko Udaltzaingoa, Gobernuako Ordezkaritza, eta Nafarroako hainbat gizarte erakundetakoak.

LABUR ESANDA

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa ez da gertakari isolatua, baizik eta gure sistema heteropatriarkala adierazpen bat gehiago. Ahultasun ekonomikoan eta bestelako ahultasun egoeratan diren emakumeak gizonen zerbitzura jartzen dira sistema horretan.

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa legez kanpo dagoen irabazi handiko negozioa da. Etekin handiko interesak ezkutatzeko eta bertan nagusi da merkatu neoliberalaren logika, giza harreman guztiak merkatuaren legearen menpe daudela edo egon behar dutela onartzen da.

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa gehien bat emakume eta neskei eragiten dien fenomeno konplexua da. Emakume eta neskak harrapatuta egoten dira indarkeria, manipulazio psikologikoa edo beste mota batzuetakoak, mehatxuak edo bortxak, batzuetan lagunen, bikotekideen edo familiaren aldetikoak, direla bide.

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa hurbileko errealitatea da. Espainia nagusiki igarotze eta jomuga den herrialdea da salerosketa egoeran dauden emakumeentzat, eta prostituzio kontsumoari dagokionez, lehen herrialdea da Europan eta hirugarrena munduan. Nafarroan egunero 2.000 gizon inguruk prostituzioa kontsumitzen dutela zenbatesten da.

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa bada, badiarelako prostituzio eta salerosketa egoeran diren emakumeak kontsumitzen dituzten gizonak. Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa egoeran diren pertsonen % 95 emakumeak eta neskak dira, eta prostituzio kontsumitzaileen kasik % 100 gizonak dira. Arreta emakume horiengan jartzera utz diezaiozun eta jar dezagun ardura dutenengan: **ordaintzen dutenengan.**

KONTAKTU BALIAGARRIAK

Balizko salerosketa kasuren bat ezagutzen baduzu, gaian aditua den poliziarengana jo dezakezu izena eman behar izan gabe.

Harremanetarako telefonoa: 900 10 50 90

www.policia.es/trata

Emaila: trata@policia.es

Twitter: @policia

Hashtag: #contralatrata

Ba al duzu zalantzarik ikusi duzun, kontatu dizuten, kontsumitzen duzun edo kontsumitu duzun prostituzio motari buruz? Acción Contra la Tratarekin harremanetan jar zaitezke; zure zalantzak diskrezio handiz argituko ditugu.

ACT
ACCIÓN CONTRA LA TRATA

GEHIAGO JAKITEKO

Nafarroan gertatzen den emakumeen eta sexu-ustiapenari eta salerosketari buruzko txostena 2011. Nafarroako Berdintasunerako Institutua. Nafarroako Gobernua.

14/2015 Foru Legea, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko.

Sexu Ustiapena helburu duen Emakume eta Nesken Salerosketaren aurkako Plan Integrala 2015-2018. Osasun, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasun ministerioa.

Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodea. Gizakien Salerosketaren VII bis IZENBURUA. 177 bis artikulua.

Gizakien salerosketaren biktimak babesteko protokolo markoa. Espainiako Gobernuaren Ordezkaritza.

Salerosketaren biktimei laguntzen. Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza 2015.

Sexu-ustiapena helburu duen salerosketaren aurkako Gizarte Foroa. 2015.

Espainiako Gobernuaren Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutua. Sexu-ustiapenerako pertsonen salerosketa.

Situation Report. Trafficking in Human Beings. EUROPOL. 2016ko otsaila.

Europako Batasunaren estrategia pertsonen salerosketa deuseztatzeko. 2012 - 2016.

Gizakien salerosketaren aurkako Europako Kontseiluaren Hitzarmena. 2005. Europako Segurtasunerako eta Elkarlanerako Erakundearen Ekintza Plana: "Gizakien salerosketaren aurka borrokatzen".

Varsoviako Hitzarmena. Gizakien salerosketaren aurkako Europako Kontseiluaren 197 zenbakiko hitzarmena, 2005ko maiatzaren 3koa (aurrerantzean, Varsoviako Hitzarmena), 2009ko apirilaren 2an Espainiak berretsia (2009ko urriaren 10eko EAO) eta 2008ko otsailaren 1ean indarrean jarria.

Sexu-ustiapena helburu duen pertsonen salerosketa Europarantz. UNODC.

Nazio Batuen Goi Mandatariaren Giza Eskubideei eta Gizakien Salerosketari buruzko Printzipioak eta Ildoak, eta Gomendioak, 2010.

Esklabotza deuseztatzea eta bere forma garaikideak. OHCHR – Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren bulegoa. 2002.

Pertsonen salerosketa sahietsi, zapaldu eta zigortzeko Palermoko Protokoloa. 2000. Palermoko Protokoloa Espainiak otsailaren 21ean berretsi zuen (2003ko abenduaren 11ko EAO).

BALIABIDE BIBLIOGRAFIKOAK

El proxeneta.

Mabel Lozano. AL REVÉS argitaletxea. 2018.

Esclavas del poder.

Lydia Cacho. DEBATE argitaletxea. 2010.

Esclavas.

Alicia Palmer. EDICIONS DE PONENT argitaletxea. 2014.

La prostitución.

Beatriz Gimeno. BELLATERRA argitaletxea. 2011.

El putero español.

Águeda Gómez, Silvia Suárez eta Rosa María Verdugo. CATARATA argitaletxea. 2015.

El año que trafiqué con mujeres.

Antonio Salas. TEMAS DE HOY argitaletxea. 2005.

Neoliberalismo sexual. El mito de la libre elección.

Ana de Miguel. CÁTEDRA argitaletxea. 2015.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Miss Escaparate. Emakumeei buruz hedabideek agertzen duten ikuspegi mugatua eta estigmatizatua. Dokumentala. 57'06".

La guerra contra las mujeres. Dokumentala. Documentos TV. 59'12".

Miente. Isabel de Ocamporen film laburra. 14' 51".

Evelyn. Isabel de Ocamporen filma sexu-ustiapena helburu duen salerosketari buruz. 100min.

Chicas Nuevas 24 Horas. Mabel Lozanoren dokumentala. 70min.

Entre colegas. Mabel Lozanoren dokumentala Lydia Cacho Fundazioarentzat. Gazteak sexu-ustiapena helburu duen salerosketarekiko sentikor bihurtzeko. 17'02".

La trata de seres humanos en España. Las invisibles. Erreportajea. Arartekoa. 12'05".

GLOSARIOA

Ekintza positiboa (baieztapen ekintzak edo diskriminazio positiboa)

Aldi baterako lehentasunezko tratamendua, benetakoa eta eraginkorra den berdintasuna ezartzea helburu duena, iraganeko eta oraingo diskriminazioaren ondorioak konpentsatuz edo zuzenduz.

Azterketa genero ikuspuntutik (genero ikuspegia)

Ikuspegi honetatik, errealitatea emakumeen eta gizonen baldintzak, egoerak eta beharrak une eta testuinguru sozial jakin batean kontuan hartuta ikasi eta aztertzen da. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunik eza sostengatzen eta eragiten duten alderdiak eta balizko diskriminazioak hautematea du helburu ikuspegi honek, eta era berean, informazioa ematen du horiek deuseztatzeko beharrezkoak diren aldaketak sustatzeko eta esku-hartzeko.

Androzentrismoa

Gizona ardatzean eta emakumea kanpoaldean kokatzen dituen ikuspuntua, abiapuntu hartuta gizonaren ustezko nagusitasuna. Maskulinoak denak gauza guztiak neurtzeko balio du. Munduaren alde bateko ikuspegia da eta gizonentzat ona dena gizateriarentzat ona dela pentsatzera eta esperientzia maskulinoak esperientzia guztiak biltzen dituela sinestera garamatza. Munduaren ikuspegi androzentrikoa sexismo mota bat da, ikuspegi honetan hezi diren eta beronengatik bereizi ezin izan diren gizaki, gizon eta emakume gehienek dutena.

Kapitalismoa

Aberastasuna ekoiztea eta sortzea kapitalean oinarritzen duen sistema politiko, sozial eta ekonomikoa. Ahalik eta etekinik handiena bilatzea, mugarik gabeko hazkundea eta ondasunak metatzea ditu xede. Baliabideen jabe denak irabaziak handitzea bilatzen du; langileak lan egitearen truke jasotako soldatan oinarritzen du bere ondasuna; eta kontsumitzen dutenek zerbait kalitate-prezio hobereanean lortzea bilatzen dute. Gure gizarteetan kapitalismoa barneratu dugunez, salgai dagoen guztiaren kontsumoaren etika zalantzan jartzeari uzten diogu.

Bortxa

Indarraren, indarkeria fisikoaren edo mehatxuaren erabilera pertsona batek zerbait egin edo esan dezan.

Gauza bihurtzea

Feminismoaren terminologian, pertsona bat (emakume bat, kasu honetan) objektutzat jotzeari deitzen diogu gauza bihurtzea. Hipersexualizazioarekin lotzen da; hau da, emakumeak eta neskak testuingurutik kanpo dauden sexu-jarreretan irudikatzearekin. Hau da, emakumeak eta neskak testuingurutik kanpoko sexu-jarreretan irudikatzearekin gizonak kitzikatzeko merkataritza erakargarri moduan. Beraz, hedabideetan emakumei gizatasuna kentzeko orduan erabiltzen diren hitzak dira.

Bereizkeria

Bereizkeria eta berdintasunik eza ez dira gauza bera. Bereizkeriak talde jakin batekoa izateagatik pertsona bat modu kaltegarrian tratatua den kasu guztiak biltzen ditu eta ez dio erreparatzen norbanakoaren jarrerari edo gaitasunari. Bereizkeria gerta daiteke formalki desberdina den tratamendua ez egonik ere.

Sexu-bereizkeria

Sexu batekoa edo bestekoa izateagatik norbait baztertzea edo gutxiagotasun-tratamendua ematea. Emakumeen eta nesken kalterako emakumeak eta gizonak ezberdin tratatzen dituzten jarrera, jardun, erabaki edo arau oro biltzen ditu sexu-bereizkeriak.

Lanaren sexu-banaketa

Betekizun ezberdinak esleitzea pertsona baten generoaren eta “berezko” dituen ustezko gaitasunen arabera. Prostituzioan jardutea sexu-banaketa honekin lotzen da, egoera honetan diren gehien-gehienak emakumeak baitira eta eskatzaileak gizonak izaten dira.

Genero estereotipoak

Sineskeria multzoa, gizon eta emakumeen usteko ezaugarri “naturalen” gainean eraikiak. Gizarte bakoitzak bere eredu maskulinoak eta femeninoak ezartzen ditu kultura arautzat. Estereotipoek gure jokabidea baldintzatzen dute. Gugandik espero denari erantzunez jokatzeko, estereotipo horiek markatutako balore eta betekizun batzuk barneratzen ditugu. Era berean, ez dute objektibotasunik eta talde jakinenganako gizartearen jarrerak eta jokabideak justifikatzen dituzte.

Estereotipoen adibideak:

Gizonen ezaugarriak. Besteak beste, autonomia arlo publikoan, oldarkortasuna, boterea, gaitasun teknikoa, ahalmen espaziala, arrazionaltasuna, indar fisikoa, aginpidea, erabakitze gaitasuna, emozioetarako trakestasuna, detaileko gai ez izatea, indarkeria, menperatzea, malgutasunik eza,...

Emakumeen ezaugarriak. Besteak beste, autonomia arlo pribatuan, sentsibiltatea, samurtasuna, emozioetarako ahalmena, eskuzabaltasuna, zaintzeko gaitasuna, ama-sena, hitz-jariorako gaitasuna, komunikaziorako gaitasuna, erakartzeko gaitasuna, trakestasun teknikoa, pentsamendu oso zehatza, ahultasuna, sumisia, mendekotasuna edo gaitasun espazial eskasa.

Feminizidioa

Emakumearen erailtea emakume izateagatik.

Feminismoa

Emakume izate hutsagatik emakumeek pairatzen dituzten diskriminazioa, indarkeria eta berdintasunik eza amaitzeko borrokatzen den gizarte eta politika mugimendua.

Txirotasunaren feminizazioa

Munduan aberastasunen berdintasunik ezak nagusiki emakumeei, eta modu kaltegarrian, eragiten diela erakusten duen joera.

Generoa

Sexu-dimorfismotik sortu zen (gizonak eta emakumeak ezaugarri biologikoen arabera; Queer teoriak eta feminismoaren ondoko mugimenduek ere zalantzan jarri zuten) eta azaltzen du femeninoa eta maskulinoak ez direla gertaera naturalak, kulturaren eraikuntzak baizik. Generoa eraikuntza soziokulturala da eta pertsonen rol, jokabide eta balore jakin batzuk esleitzen dizkie bi kategoriatan banatuz: femeninoa eta maskulinoak. Mutil diren haurrei gaitasun batzuk sustatu, hezi edo sendotzera irits daiteke eta beste ahalmen batzuk garatzea oztopatzen da. Neska diren haurren artean ere berdin egin daiteke, haien artean ahalmen mota bat sustatuz eta “gizonenak berezkotzat” jotzen direnak gara ditzaten galaraziz.

Heteronormatibitatea

“Normaltasun” arau eta estandarrek harreman heterosexualak “naturaltzat” jotzen dituen botere harremanen multzoa. Gizarteak onar dezakeenaren baitan kokatzen ditu harreman mota horiek eta emakumeen eta gizonen arteko osagarritasunaren ideia murriztailea indartzen du. Heteronormatibitateak, beraz, sexu-aniztasuna, nortasun-aniztasuna eta sexu-orientabidea diskriminatzen ditu.

Homofobia

Gorrotoa, fobia edo errefusa gizonen arteko afektuzko edo sexu harremanekin zerikusia duen guztiari. Berdintsu hitz egiten dugu lesbofobiari edo LGBTIfobiari buruz.

Berdintasuna

Berdintasuna baliokidetasun harreman baten modura definitzen da; pertsona guztiek balore, eskubide eta betebeharrak berak badituzte, bakar batek ere ezin du jaso ez pribilegiarik ez eta kalterik ere bere ezaugarri pertsonalengatik (ezaugarri horiekin sortzen da edo bizitzan zehar egiten da horien jabe).

Berdintasun printzipioak adiera bikoitza du: (1) Berdintasun formala, legearen aurrean; eta (2) Funtsezko berdintasuna edo berdintasun erreala, herritar guztien erabateko parte-hartzea bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalean. Ikuspegi bikoitz hau abiapuntutzat hartuta, botere publikoak “berdinak berdin” tratatzera behartuta daude, baina baita “ezberdinak ezberdin” tratatzera ere.

Genero nortasuna

Ego bereizgarria garatzen duen nortasunaren eraikuntzari egiten dio erreferentzia. Ego horretan, pertsona gizon edo emakume sentitzen da bere sexua kontuan hartu gabe, hau da, ezberdintasun biologikoa alde batera utzita.

Genero berdintasuna

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak, bai eta gizartean dituzten zeregin/rol ezberdinak ere, berdin onartzea. Arlo pribatuko eta publikoko esfera guztietan bi sexuen ikuspegia, ordezkartza eta parte-hartzea dakartza berekin.

Aukera berdintasuna

Printzipio etiko bat da. Horren bidez, botere politikoak, gizarte osoa inplikatur, honakoak bermatzea bilatzen du: pertsonen garapena eta pertsonen ondasun materialak eta pertsonalak eskuratzea, edozein motatako bazterkeria zuzen edo zeharkakoak mugatuak egon gabe.

Matxismoa

Emakumeak gizonak baino gutxiagotzat jotzen dituen ideologia, edo gizon eta emakumeek ezaugarri natural jakin batzuk dituztela eta hori dela-eta “beste sexuari esleitutako” eginkizunak bete ezin ditzaketela uste duena. Feminismoa iraintzen du eta beren eskubideen alde borrokatzen diren emakumeen karikatura egiten du mingotsak, frigidok, feminaziak, histerikoak edo ahoberoak direla irudikatuz.

Gizontasun hegemonikoa

Raewyn Connellek sortutako izendapena da eta testuinguru soziokultural jakin batean erreferentziazkoa den gizon-ereduari egiten dio erreferentzia, gizarte taldeen edo adin tarteen arabera aldaerak eduki ditzakeen arren. Ereduekin bat ez datozen gizontasunak menpeko gizontasun bihurtzen dira.

Beste gizontasun batzuk

Lehen “gizontasun berriak” deituak, gizontasun hegemonikoa erakusteko ikasitako rol haien gainean gizonek kontzientzia hartzen dute beste gizontasun mota hauetan, rol horiek harreman ez osasungarriak ekar baititzakete, eta baita indarkeria eragin ere. Berdintasuna eta aldaketa soziala maila pertsonalean bilatzen duten jokabide hauen gaineko hausnarketak Feminismoaren joera bat eratu du gizonen artean.

Sexu-grinaren orientabidea

Pertsonok sexualki erakar gaitzaketen estimuluak dira, gure sexurako gogoia ernatzen dutenak, gure sexua edo genero-nortasuna alde batera utziz.

Patriarkatua

Feminismoak sortutako terminoa matxismoak, hau da, gizoni eta genero maskulinoari lotutako baloreen nagusitasunak, sostengatutako gizartearen egitura adierazteko.

Genero ikuspegia

Errealitatea ulertzeko era bat, ezarritako botere-harremanak eta genero-diskriminazioak aztertu eta hausnartzen dituen horiek salatze, iraultze, zalantzan jartzeko eta eraldatzeko harreman bidezkoak eta zuzenak bihurtzeko daitezke.

Aurreiritzi sexistak

Gizon eta emakumeen artean harreman hierarkikoa dagoela onartzen dugunean geureganatzen ditugun balio-irritziak, pentsamoldeak eta adierazmoldeak. Kultura maskulinoaren nagusitasuna gertaera naturala dela ikasi eta onartzen denean eraikitzen diren aurrez pentsatutako ideiak dira.

Genero rolak

Duten sexuaren arabera pertsonengandik espero diren ezaugarriak eta jokabideak. Gizarteak pertsona bati eta sexu bera (ezaugarri biologikoak) duten pertsoni esleitzen dizkien jarrerak, baloreak eta jokabideak biltzen ditu. Rolak, edo betekizunak, gizartean edo egoera jakin batzuetan norbaitek duen eginkizuna edo jarrera definitzen du.

Sexuaren arabera espero diren banakako jokabideak izanik, sortze unetik eragiten dituzte ondorioak. Jaiotzean neska edo mutila izateak baldintzatzen du, aurreikusten du jaiotakoak zer ahalmen mota erakutsi eta garatuko duen; jasotako hezkuntza markatzen du horrek eta gaitasun eta balore jakin batzuk agertzea bultzatzen du beste sexuari esleitzen zaizkionaren kalterako.

Tradizioz emakumeei eta gizoni esleitutako zereginek eta betekizunek jatorria ez dute naturan, gizartean baizik. Sozializazio prozesuen bidez, estereotipo edo mekanismo sexistak erabiliz, gizon eta emakumeen jokabideen uniformetasuna finkatzen da. Pertsona bakoitzaren jokabidea ez badator bat gizarte bakoitzak sexu bakoitzari esleitzen dion ezaugarriarekin, errefusak eta bazterketak jasotzen dira. Emakume batek asmo handiak dituenean edo gizon bat lehiasua ez dela dionenean gizarteak zergatik zentsuratzen dituen ulertzera gramatza horrek.

Sexismoa

“Arrazismo” hitzarekiko analogiaz sortu zen hitz hau emakumeentzat sexua bazterkeriarako, mendekotasunerako eta balioa galtzeko faktore bat dela erakusteko. Jarrera bat da: pertsona batetik dugun jokabidea pertsona hori emakume edo gizon izateak baldintzatuta dator. Jokabide horiek hierarkia eta bereizkeria dakartzate. Sexismoak bizitzaren eta giza harremanen arlo guztiak barne hartzen ditu.

Darabilgun mintzairak indarrean den sexismo kulturalaren eredu batzuk erakusten ditu. Epitetoek, esaerek, txisteeak eta irainek askotan emakumeen ezaugarriak, ohiturak edo gorputzaren zatiak gutxiensten edo mespretxatzen dituzte. Mundua genero maskulinoaren bidez definitzen da eta gizonari gizateria osoaren ordezkartza esleitzen zaio.

Heterosexismoa

Hitzak honako hau nabarmentzen du: emakume eta gizonentzat balore ezberdinak finkatzeaz gainera, horiek harreman heterosexualean elkarren osagarri dira. Desiratutakoa eta naturala dela adieraziz aurkezten da harreman heterosexuala eta beste joera eta nortasun batzuk gutxiensten dira.

Sexua

Gizon-emakumeengan, gainerako animalia espezieetan bezala, sexua ezaugarri biologikoek (anatomikoak, fisiologikoak eta genetikoak, ar eta emeei esleituak) definitzen dute. Kromosoma pare batean datorren informazioak zehaztuta dator. Gizakiaren naturaren beste alderdi batzuk bezala, sexu-aldagaia bizitzako etapa guztietan barna bilakaturik doa, faktore psikologiko eta sozialen eraginpean (sexuazio prozesuak).

Sexu/genero sistema

Gayle Rubin feministak sortutako terminoa sistema jakin bati buruz aritzeko. Sistema horren bidez, ar eta eme sexueta bakoitzari genero bat esleitzen zaio eta horrekin bat etorritik jokatu behar du. Zenbaitetan patriarkatu hitzaren sinonimotzat erabili arren, maskulinoaren hierarkia ez du azpimarratzen femeninoaren gainetik.

Gizarteratze bereizita

Elkarrekintzan oinarritutako prozesua da. Elkarrekintzaren bidez, pertsonak sexu/genero rolean bat datozen jarrerak eta jokabideak garatzen dituzte partaidea diren komunitatera egokitzeko eta gizarteratzeko.

Queer teoria

“Queer” teoria (ingelesez “arraroa” edo “bitxia”) heterosexuala (“straight” ingelesez) “zuzentzat”, “normaltzat” jotzen duen heteronormatiboari erantzuteko sortu zen. Pertsonen generoak, sexu-nortasunak eta sexu-orientabideak gizarteraren eraikuntzaren emaitza direla dio. “Gizona”, “emakumea”, “heterosexuala” edo “homosexuala” kategorien sailkapenak harago joateko proposamena egiten du, horiek heteronormatibitateak agindutako etiketak baitira (agindutako kultura heterosexuala).

Emakumeen aurkako indarkeria edo indarkeria matxista

Emakume izateagatik emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa edo sinbolikoa da. Egiturazkoa da eta matxismoak sostengatzen du. Etxeko indarkeria izendapena ez da zuzena bakarrik bikotearen esparrura mugatzen baita; familiaren barruan erabiltzen den indarkeria definitzeko izendapen zuzena “familia barruko indarkeria” da. Emakumeen aurkako indarkeria dira, halaber, emakumeen sexu-organoen mozketa, ohorearen izenean egindako hilketak, ezkontza behartua, sexu-ustiapena helburu duen salerosketa edo pornografia behartua.

Indarkeria sinbolikoa

Ezarritako dauden botere- eta menderatze-harremanak sostengatzen dituen indarkeria mota, ezkutuan eta modu ikusezinean erabilia. Literaturan, zineman, telebistan, prentsan, kondairetan, herri-esaeretan, txisteetan, abestietan, bideo-jokoetan, artean, publizitatean, interneten eta

abarretan azaltzen da eta erreferentziatzen hartzen diren ordena heteropatriarkalarekin eta kapitalistarekin bat datozen mezuak ezartzen ditu.

SALEROSKETARI BURUZKO GLOSARIOA

Pertsonen salerosketa

Pertsonak erakartzea, garraiatzea, lekuz aldatzea, hartzea edo jasotzea, mehatxatuz edo indarkeria edo behartzeko beste modu batzuk, bahiketa, iruzurra, engainua, botere-abusua edo kalteberatasun-egoera, erabiliz, edo ordainketak edo onurak emanez edo jasoz beste pertsona bat mendean duen pertsona baten baimena lortzeko, ustiapen helburuekin. Inoren prostituzioaren esplotazioa edo beste sexu-ustiapen mota batzuk izan daitezke, derrigorrezko lan edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko jarduerak, morrontza, organoen erauzketa, ezkontza behartuak, eskaletasuna etab. Delitua da eta Giza Eskubideen urraketa. Sexu-ustiapena helburu duen salerosketari buruz hitz egiten dugu, kasuen % 97 emakumeak eta neskak baitira.

Palermoko protokoloa

2000. urtean sinatutako hitzarmena "pertsonen salerosketa, bereziki emakume eta haurrena, saihezi, erreprimitu eta zigortzeko". Pertsonen salerosketaren definiziorako irizpideak batzea lortu zuen munduko herrialde guztietan. Estatuak pertsonen salerosketa saihestera eta borrokatzera, biktimak babestu eta laguntzera, eta helburu horiek lortzearen estatuen arteko lankidetzat bultzatzera behartzen dituen tresna juridiko lotesle nagusia da.

Pertsonen trafikoa

Beste herrialde batean sartzea debekatuta duten pertsonen herrialde horretan modu klandestinoan sarrera ahalbidetzea zerbaiten truke.

Prostituzioa

Sexu-harremanen trukea dirua edo beste ordain-sari eskuratzeko. Prostituzio asketzat jotzen da bakarrik adinez nagusiek egindakoa eta tartean ez badago inolako bortxarik, larderia edo gezurrik, iruzurrik, botere gehiegikeriarik edo nagusitasun egoerarik, beharrik edo kalteberatasunik.

Sexu-ustiapena

Beste pertsona baten prostituzio behartuaren kontura irabaziak lortzea. Ustiatutako pertsonak objektutzat edo merkatura daitezkeen produktutzat hartzen dira esplotatzailearen onurarako.

Proxeneta

Beste pertsona baten prostituzioaz probetxua ateratzen duen pertsona, harengandik zuzenean irabaziak lortuz edo haren jardunaren kontura mantenduz.

Padrote

Mexikarazko hitza emakume eta neskak azienda bailiran erosi eta saltzen dituzten proxenetak izendatzeko. Emakume eta nesken sexu-ustiapenaren truke irabaziak lortzeko erosi eta saltzen dituzte.

Lover Boy

Proxenetek erabilitako tekniketako bat emakumeak eta neskak maitemina bidez erakartzeko. Gezurrezko senargai batek emakumeak eta neskak beren inguruntatik aldentu, baztertu eta kalteberatasun egoeran uzten ditu eta, gero, sexualki ustiatzen ditu (gezurra, bortxa, mehatxua, indarra erabiliz edo biktimaren onespen akastua lortuz egiten du).

Prostituitzailea, putazalea edo kontsumitzailea/bezeroa

Prostituzio egoeran den beste pertsona bat (eskuarki emakumeak eta neskak) erabiltzeagatik ordaintzen duen eta, horrenbestez, sexuaren merkatua elikatzen duen eta kontsumituak izateko emakume eta neska gehiago lortzen dituzten salerosketa eta proxeneta sareak sostengatzen dituen gizona. “Kontsumitzaile” edo “bezero” hitzak salgai dagoenarengatik ordaintzen duen prostituitzaileari egiten dio erreferentzia, merkartu libre baten fantasian sistema kapitalistaren barruan eroslearen betekizuna bere gain hartzen duenari.

Zorra

Proxeneta batek emakume edo neska bati epe jakin batean ordainarazten dion diru kopurua. Emakume edo neska horren sexu-ustiapenari etekina ateratzen dio proxenetak. Sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketa egoera batean, zorra gastu hauek balioetsiz finkatzen da: pertsonaren bidaia bere jatorrizko herrialdetik, dokumentazio eta bisatu gastuak (faltsuak badira ere), ostata, mantenua, segurtasuna, prostituzioan jarduteko arropa eta osagarriak, ile-apainketa, makillajea, botikak, etab. Zor horiek handituz joan daitezke eta, behin pertsona beste proxeneta bati salduta, nahitaezko zorra berri bati aurre egiten hasi behar dute berri.

Plaza

Prostituzioan jardutearren emakume edo neska batek harremanetarako klub batean logela bat edo pisu bat erabiltzeko eskubidea izateagatik ordaindu beharrekoa. Plazak, eskuarki, gehienez 21 egunerako erreserbatzen dira eta, ondorioz, emakumeak toki batetik bestera biraka ibiltzera behartuta daude eta lokalek merkaturako produktua maiz berritzeko aukera dute.

PROSTITUZIOAREN LEGE IKUSPEGIA

Espanian prostituzioa legez kanpokoa ez bada ere, beste pertsona baten sexu-ustiapen behartua bai, bada. Harremanetarako klubek badituzte taberna berezien eta hotelen lizentziak, eta horrela, logelak eskaintzen dituzte. Prostituzio egoeran diren emakumeek ordaindu egiten dute logela horiek (“plaza”) erabiltzeko. Prostituzioan jarduteko erabakia askatasunez hartzen duten emakume batzuek langile autonomo izateko alta hartzen dute modu arautuan aritzeko. Hala eta guztiz ere, Europan prostituzioaren inguruko emakume eta neskak kasu gehienetan arautu gabeko egoeran edo txirotasun edo bortxa egoeran daude.

Prohibizionismoa

Prostituzio negozioa debekatzearen alde egiten duen eta sexu-merkatuaren sarea osatzen duten parte guztiak (prostituitutako pertsona, proxeneta eta prostituzio-kontsumitzailea) arlo penalean zehatzen dituen eredu.

Erregelarentarismoa

Prostituzioa gertaera ekidinezina dela uste duen eta prostituzioan jarduten diren emakumeak kontrolatzeko sistema bat ezartzen duen eredu. 2000. urtean Herbehereek, eta ondoren Alemaniak (2002) eta Suitzak (2010), finkatutako bidea da. Arautzearen ondorioz, proxenetismoak askatasunez funtzionatzen du eta nola gizon heterosexualek prostituzio eskaerak hala sexu-turismoak gora egin dute. Halaber, gora egin du emakumeen klandestinitatea sexu-merkatuan (egoera ez arautuan diren emakume kopuruak nabarmena da izaten jarraitzen du) kontrolak saihestearren, halabeharrez pertsona bakoitzaren irabaziak jaitsi dira merkatu librearen legeen ondorioz lehiak gora egin duelako, etab.

Herrialde erregelamentaristek haur-prostituzioaren, emakume eta nesken salerosketaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren hazkunde handia hauteman dute. Halaber, beren porrota aitortu dute sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketaren aurkako borrokan.

Abolizionismoa. Eskandinaviako edo Suediako eredua

Prostituzioa izan badagoela aitortu eta berau deuseztatzeko borrokatzen den eredua, berdintasunik ezaren adierazpentzat jotzen baita. Hori da Suediak 1999an hartutako ildo, eta ildo horri jarraitu diote, besteak beste, Norvegiak (2009), Islandiak (2009), Ipar Irlandak (2015) eta Frantziak (2016). Sexu-erosketaren penalizazioak eta sexu-salmentaren despenalizazioak prostituzio-eskaria jaitea ekarri dute eskatzaileei isunak jarritz. Prostituzioa utzi nahi duten emakumeentzako aukerak eta laguntza barne hartzen ditu. Aukera honek prostituzioa ez du legez kanpo uzten eta sexu-jardunak askatasunez eskaintzen dituzten emakumeak ez ditu kriminalizatzen.

Nortzuk gara

Acción Contra la Trata = ACT Nafarroan sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. Pertsonen Salerosketaren aurka borrokatzea da gure helburua, bereziki gure aldamenean dugun desberdintasun eta indarkeria adierazpenik larrienaren aurka; sexu-ustiapena helburu duen emakume eta nesken salerosketaren aurka, alegia. Horretarako, pertsona guztien artean sexu-afektuzko harreman osasungarriak eraikitzeko aukera emanen diguten berdintasun balore batzuen alde lan egiten dugu, inolako bereizkeriarik gabe.

Saltzen dizkiguten kontsumo, berehalakotasun, nagusitasun, lehiakortasun eta oldarkortasun baloreak eraisten dituen gizentasun-ereduaren alde egiten dugu apustu; berdintasunezko gizartea eraikitzea da gure xedea, zeinetan pertsona guztiok izango dugun tokia eta gure gaitasunak baldintza berberetan garatu ahal izango ditugun.

Informazio gehiagorako, hemen bisita gaitzakezu:

www.accioncontralatrata.com



www.facebook.com/accioncontralatrata/



www.instagram.com/accion_contra_la_trata/



@ACTrata

info@accioncontralatrata.com

+34 948 069 049 / +34 601 47 42 92

Zuk ere gure berdintasunezko helmugan parte har dezakezu.

Izan zaitez ACTko partaide.



Argitalpena:

Acción Contra la Trata - ACT
Teresa Iriarte Martín
Alicia Giménez García
Vanessa Eguiluz González

Itzulpena euskerara:
María Lizardi Arrijuia

Ilustrazioa:

Nuria Jerez Amador
njereza@hotmail.com

Natalia Romero
nataliazulinea.tumblr.com



SEXU-USTIAPENA HELBURU DUEN EMAKUME ETA NESKEN SALEROSKETA

Subvenciona el Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasun Institutuaren Laguntzarekin

Nafarroako  Gobierno
Gobernua  de Navarra



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala